



Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)

TURISMOA PERTSONA GUZTIENTZAT Jardunaldi Biderkatzailea



2019ko martxoaren 7an, osteguna, Growmat proiektuaren taldeak Europar Batasunerako Euskadiko Ordezkaritzan bere emaitzak aurkeztu zituen.

GROWMAT Kideak



Dokumentu honek autoreen iritziaik soilik islatzen ditu eta Batzordeak bertan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraren ardura ez du bere gain hartuko.

Jardunaldi Biderkatzailea Bruselan, Belgika

“Turismoa GUZTIONTZAT” GROWMAT jardunaldi biderkatzailea 2019ko martxoaren 7an ospatu zen, EB-rako Euskadiko Ordezkaritzan. Jardunaldia aukera bikaina izan zen turismoarekin eta irisgarritasunarekin lanean ari diren sektore ezberdinetako ordezkariak biltzeko: LH-ko ikastetxeak, EB-ko Erakundeak eta sektore pribatuko enpresak eta erakundeak. Helburuetako bat turismo inklusiboaren aukerak eta gaintitu behar izaten dituen erronkak agerian jartzea izan zen.

Marijo Irastorzak (CDEA) GROWMAT proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen eta LH-ko ikastetxeak irisgarritasunarekin lotutako gaitan sensibilizatzearen eta enpresak hala nola GKEak bezalako talde hartzaile ezberdinekin aliantzak garatzearen garrantzia nabarmendu zuen, pertsona guztientzako turismo eskuragarriaren kontzeptua hobetzeko helburuarekin. Lankidetzaz aurrera egiteko faktore giltza da.

Chrystalla Petridouk (Europar Batzordea, DG-EAC) Erasmus+ mugikortasun hutsaz haratago kontsideratzeko beharra azpimarratu zuen. Erasmus+ gaur egun Europa osoan existitzen diren arazoetarako irtenbide berriak garatzerat dator. GROWMAT proiektuaren bi elementu azpimarratu zituen: behar bereziak dituzten pertsonen inklusioan eta sektore arteko lankidetzan oinarritutako bere ikuspegia, hezkuntza erakundeak, enpresak, zerbitzuen merkatua bilduz eta lankidetzaz hala nola elkarte eraikitzaileak sortuz. Oinarritzakoa da LH babesten jarraitzea, izan ere, gizarte oinarri ezberdinetako ikasleengana iristeko gaitasuna du. Hala ere, oraindik Europa osoan turismoaren irisgarritasuna hobetzeko lan asko dago egiteko. Baina egia da LH-ren esparruan lan egiteko eta Erasmus+ sendoago bat sortzeko konpromiso bat dagoela, partaideen profila ugaritzeko eta hedatzeko helburuarekin.

Marny Thompson (Age UK) GROWMAT proiektuaren praktika egokiak aurkeztu zituen eta azaldu zuen proiektuaren helburu nagusienetako bat, bere pertsonala prestatzeko denborarik eta beharrezko baliabiderik ez dituzten PYME haien zat laguntza ematea dela. Horregatik, GROWMAT proiektuak kolektibo ezberdinengana (tu-

rismo enpresak, turismoko eta jatetxe-arloko ikasleak eta bere enpresa propioa sortu edota irisgarritasunaren inguruan kontzientzia hartu nahi duen beste edozein pertsona) zuzendutako bi ikastaro diseinatu ditu. Turismoaren merkatuan adineko pertsonen dagokienez existitzen den zuloa modu integralean landu behar da pertsona guztien irisgarritasuna lortuko bada.

Panagiotis Anastassopoulou (P-consulting) GROWMAT AccAdvisor web aplikazioaren ezarpena egin zuen; hau lagungarria gertatuko da turistentzat gune turistiko ezberdinetako irisgarritasun zerbitzuak kalifikatzeko orduan. Bestalde, Grezia destino turistiko onenetako bat izatearen paradoxa aipatu zuen, izan ere, irisgarritasunari dagokionez atzean geratzen da. Instalaziotako irisgarritasuna hobetzea ekonomiaren terminotan aukera bikaina izan daiteke, izan ere, “adineko pertsonen ekonomiak” merkatu mota ezberdinetan inpaktu ekonomiko nabarmena izaten du.

“Irisgarritasun gabeziak sektore turistikorako kostu bat ekartzen du”

Peter Hodgson (EfVET) "Turismoa eta irisgarritasuna – Pertsona guztien hazkunde ekonomikoa, eskubidea eta ongizatea lortzeko aukera bat" izendatutako debatea zuzendu zuen eta esparru honetan existitzen diren enpresa politikak eta ikuspegiak hobeto ulertzeko aukera eskaini zuen.



Girma Anuskeviciutek (Europar Batzordea, DG-GROW) Europar Batzordeak turismo eskuragarriaren esparruan aurreikusitako jarduerak eta babes neurriak aurkeztu zituen. Turismo eskuragarriak 400 mila milioi euroko diru-sarrera batzuk

sortzen ditu, 9 milioi enplegu babestuz eta hala ere, EB-ko Estatu kideen zerbitzu turistikoetako % 9a soilik gertatzen da erabat irisgarria. Zerbitzu egokiak inplementatuko balira, urteko demanda % 44 hedatuko litzateke. Nola lor daiteke hori? Trebetasunak, eskaintza, komunikazioa eta informazioa hobetuz. **Girmak** halaber turismo eskuragarria saritzen duten DG GROW-ren ekimen batzuk aipatu zituen, esaterako Turismo Eskuragarrian Bikaintasunari emandako Sari Europarrak, Hiri Eskuragarria Saria eta Turismo Adimentsuaren esparruko Hiri Europarrak.

Inmaculada Placencia Porrerok (Batzerde Euro- parra, DG-EMPL) irisgarritasunean eta legedi berriaren edukian oinarritutako lanaren ikuspegi orokorra eman zuen. Irisgarritasuna hiritar guzti- entzako sarbide berdina bermatzeko baliabide bat kontsideratu behar da. Estatu kideek ikuspegi ezberdinak dituzte baliabide teknikoak, legegintza eta jurisdikzioa terminoetan, eta horrek desgaitasuna duten pertsonentzako mugikortasun turistikoa eragotzi egiten du, aurreikuspen maila batekin kontatzearen garrantzia kontuan hartuta.

Amaitzeko, halaber garrantzitsua izanik, **Julien Vanlaeysek** (Citadines, The Ascott Limited Europe) debatea enpresa ikuspegi batekin amaitu zuen. Enpresa bezala, irisgarritasunaren prozedura ezberdinak hobetzeko esfortzuak egiteaz haratago funtsak inbertitzen diren arren, erronkek ugariak izaten jarraitzen dute – hiri guztiak ez dira eskuragarriak eta turistek ezinbestean hirietako azpiegituren eragina jasaten dute, ostatura iritsi aurretik. Gainera, pertsonala errealitatea gainditzeko eta turismoa bezain azkar hazten den sektore batek zein erantzun mota behar dituen identifikatzeko behar bezala prestatuta egon behar da.

Peter Hodgsonek debatea amaitzeko irisgarritasuna, inklusioa eta langileen ezagutzak eguneratzearen garrantziari buruz kontzientzia sortzeko beharra azpimarratu zuen.

Laburbilduz, balorazio oneko jardunaldi bat, bertaratuen interesa pizteaz gainera GROWMAT proiektuaren balioekin erabateko sintonia azaldu zuten txostengile adituen partaidetzarekin kontaktu zuena.

GROWMAT prestakuntza ikastaroa

Growmat ikastaroa proiektuaren herrialde kide guztietan pilotatua izan da: Espainia, Grezia, Eslovenia, Erresuma Batua (Bridgwater) eta Finlandia. Oro har, ikasleen eta irakasleen iritziak oso onak izan dira.

Growmat bi ikastaroak egitura komun batetik abiatu dira, eta jarraian hura bi kolektiborekin egokitu da: bat turismo eta ostalaritzako ikasleena eta bestea turismoarekin lotutako enpresetara zuzendua. Kideek ikastaroak maila, ikasle eta enpresa lokalekin egokitzeko aldaketa egokiak egin dituzte, Espainia eta Greziaren kasuan bezala. Egitura modularrak ikastaroa herrialde bakoitzeko mailekin eta beharrekin egokitzea ahalbidetu du. 3-4 Maila Eslovenian, 5 Espainian eta Master Finlandian.

Abenduaren 5ean Erresuma Batuan ospatutako jardunaldi biderkatzailea



Jardunaldira etorri ziren pertsonak adinekoak izan ziren, alegia publiko objektibo erreal bat. Horiek guztiek gehiago jakiteko eta bere hirietako irisgarritasunaren arloaren aurrerapenak ezagutzeko interesa erakutsi zuten.

Bisitatu gure webgunea ...

Zatoz bizitza errealaren ataria den GROWMAT komunitatearekin bat egitera. Bertan ikusiko dugu elkar.

www.growmat.eu